Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko azaroaren 24a, asteartea — 224 — Martes, a 24 de noviembre de 2026

ORDIZIAKO UDALA

Iragarkia

2026ko azaroaren 16an Udal honetako Alkateak 2026/1985 Alkate Dekretuan honako hau erabaki du:

Lehenengoa: 2023ko EPEeri dagokion Elektrikari Arduradunа plaza karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuaren deialdia onartzea.

Bigarrena: Lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez, Ordiziako Udaleko Elektrikari-Arduradunaren plaza bat jabetzan betetzeko eta lan-poltsa sortzeko, erantsitako oinarri arautzaileak onartzea.

Hirugarrengoa: Deialdi honen oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* eta www.ordizia.eus orrialdean argitara ematea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote udal honetako alkateari, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, egoki jotako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Ordizia, 2026ko azaroaren 16a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (7548)

Elektrikari-arduradunaren plaza bat jabetzan betetzeko lehiaketa-oposizioaren oinarri arautzaileak eta lan-poltsa sortzea.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Ordiziako Udaleko karrerako funtzionarioen plantillan hutsik dagoen arduradun elektrikari lanpostu bat (1) betetzea, lehiaketa-oposizio bidez. Lanpostu hori Administrazio Bereziko Eskalan, Zerbitzu Berezietako Azpieskalan eta Ofizioetako Langile Motan integratuta dago, eta txanda librean beteko da.

— *Izena:* Elektrikari Arduraduna.
Sailkapen taldea: C2.
Lanpostu mailako osagarria: 17.
Berariazko osagarria: 24.774,96.
Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatua edo baliokidea.
Hizkuntza eskakizuna: B2/B2.
Derrigortasun data: 1997/02/27.
Betekizun espezifikoak: B motako gidabaimena.
Plaza kopurua: 1.
Hornitzeko era: Txanda irekia.

AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

Anuncio

Con fecha 16 de noviembre de 2026 el Sr. Alcalde de este Ayuntamiento, en el Decreto n.º 2026/1985, ha aprobado lo siguiente:

Primero: Aprobar la convocatoria de proceso selectivo de 1 plaza de encargado/a electricista como personal funcionario de carrera correspondiente a las OPE de 2023.

Segundo: Aprobar las bases reguladoras adjuntas del concurso-oposición libre para la cobertura en propiedad de una plaza de Encargado/a Electricista y la creación de la bolsa de trabajo del Ayuntamiento de Ordizia.

Tercero: Ordenar la publicación de la Bases de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, *Boletín Oficial del Estado* y en la página www.ordizia.eus.

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán presentar contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, y previo al recurso contencioso-administrativo, las personas interesadas podrán interponer, ante la Alcaldía de este Ayuntamiento, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de los recursos que se estime conveniente.

Ordizia, a 16 de noviembre de 2026.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (7548)

Bases reguladoras del concurso-oposición para la cobertura en propiedad de una plaza de Encargado/a Electricista y creación de bolsa de trabajo.

Primera. Objeto de la convocatoria.

Es objeto de la presente convocatoria la provisión, como funcionario o funcionaria de carrera mediante el sistema de concurso-oposición, de una (1) plaza de Encargado/a Electricista, vacante en la plantilla de personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de Ordizia, integrada en la Escala de Administración Especial, Subescala de Servicios Especiales, Clase Personal de Oficios, a cubrir por el turno libre.

— *Nombre:* Encargado/a Electricista.
Grupo de clasificación: C2.
Complemento de destino: 17.
Complemento específico: 24.774,96.
Titulación: Graduado en Educación Secundaria Obligatoria (G.E.S.O.) o equivalente.
Perfil lingüístico: B2/B2.
Fecha de preceptividad: 27/02/1997.
Requisitos específicos: Permiso de conducir clase B.
Número de plazas: 1.
Provisión: Turno libre.

EK\CV GAO-I-2026-07548

Bigarrena. Lan baldintzak.

Lanaldia osoa izango da, Udalak lanpostuaren izaera eta beharrizan espezifikoen arabera erabakitzen dituen ordutegi eta egutegiarekin.

Hirugarrena. Funtzioak.

— Zerbitzu Orokorretako arduradunarekin lankidetzan aritzea elektrizitate-zerbitzuaren mantentze-planak egiteko.

— Zerbitzuari atxikitako langileen lanak zuzendu, antolatu eta gainbegiratzea.

— Bere ardurapeko langileek planteatutako kontingentziak ebaztea, plantillaren kezkak eta beharrak goragokoari bideratuz.

— Biltegiaren, ibilgailuen, makineriaren eta zerbitzuaren erremintaren egoera egokiaz eta mantentze-lanez arduratzea, horretarako beharrezkoak diren zereginak gauzatuz.

— Instalazio elektrikoak egiteko behar diren materialen hornikuntzaz eta erosketaz arduratzea, Zerbitzuen arduradunak ezarritako arauen arabera.

— Argiteria publikoko instalazio osoak egitea, baita argiteria orokorrekoak ere.

— Argiteria publikoaren instalazioa eta udal-eraikinak berrikustea, matxurak egon daitezkeela aurreikusita.

— Argiteria publikoko sarean eta udal-eraikinetan egindako instalazio berriak berrikustea, jaso aurretik.

— Argiteria publikoan sortutako matxurak konpontzea: farolak aldatzea, argiteria publikoko lineak berritzea, etab.

— Udal-eraikinetan gertatutako matxurak konpontzea: bonbillak, fokuak, instalazio berriak, etab.

— Enpresa pribatuek instalazio elektrikoen, argiteriaren, semaforoen eta abarren arloan egindako lana gainbegiratzea eta kontrolatzea.

— Argiteria publikoko koadroak konpontzea.

— Motorrak egiaztatzea eta makina elektrikoak konpontzea.

— Emisoreak eta haien antenak jartzea, eta matxura posibleak eta konponketak kontrolatzea.

— Udaleko transmisio-ekipoaren matxurak konpontzea.

— Elektrizitate-linea berriak botatzea.

— Jai-ekitaldietarako, ekitaldi publikoetarako eta abarretarako instalazio bereziak gainbegiratzea eta jartzea.

— Hirigintza eta Zerbitzuetako langileekin lankidetzan aritzea instalazio elektrikoekin eta argiteria publikoarekin lotutako proiektuak egiteko.

— Arloko berezko kudeaketak egitea Industria Ordezkaritzarekin, energia hornitzen duten konpainiekin eta abarrekin.

— Egoerari buruzko txostenak egitea, arloaren berezko alderdiei dagokienez.

— Enpresa pribatuei argiteria publikoko lurpeko instalazioen kokalekuaren berri ematea, matxurak egon daitezkeela aurreikusita, eta instalazio horien jarduerak gainbegiratzea.

— Pertsonekin, udaleko erakundeekin eta udalaz kanpoko erakundeekin harremanak eta bilerak izatea, arloko gaiei eta agindutako zereginei dagokienez.

— Zerbitzuen arduradunarekin harremanetan egotea, informazioa trukatzeko eta jarraibideak jasotzeko.

— Lanpostuaren lanbide-kategoriaren arabera esleitzen zaion beste edozein eginkizun betetzea.

Segunda. Condiciones laborales.

La jornada laboral será completa, con el horario y calendario que acuerde el Ayuntamiento en base al carácter y necesidades específicas del puesto de trabajo.

Tercera. Funciones.

— Colaborar con el responsable de Servicios en la elaboración de Planes de Mantenimiento del servicio de electricidad.

— Dirigir, organizar y supervisar los trabajos del personal adscrito al servicio.

— Resolver las distintas contingencias planteadas por los operarios a su cargo, canalizando a su superior las inquietudes y necesidades de la plantilla.

— Responsabilizarse del buen estado y mantenimiento del almacén, vehículos, maquinaria y herramienta del servicio, ejecutando las tareas necesarias para ello.

— Responsabilizarse del aprovisionamiento y compra de materiales necesario para la ejecución de las instalaciones eléctricas, de acuerdo con las normas establecidas por el responsable de Servicios.

— Ejecutar instalaciones completas de alumbrado público, así como de alumbrado en general.

— Realizar revisiones de la instalación de alumbrado público y edificios municipales en previsión de averías.

— Realizar revisiones de las nuevas instalaciones realizadas en la red de alumbrado público y edificios municipales previamente a su recepción.

— Reparar averías producidas en el alumbrado público: cambiar farolas, renovar líneas del alumbrado público, etc.

— Reparar averías producidas y en los edificios municipales: bombillas, focos, realizar nuevas instalaciones, etc.

— Supervisar y controlar el trabajo realizado por empresas privadas en materia de instalaciones eléctricas, alumbrado, semáforos, etc.

— Reparar cuadros de alumbrado público.

— Comprobar motores y repara máquinas eléctricas.

— Colocar emisoras con sus respectivas antenas y controlar posibles averías y sus reparaciones.

— Reparar las averías del equipo transmisor del Ayuntamiento.

— Tirar nuevas líneas.

— Supervisar y colocar instalaciones especiales para actos festivos, acontecimientos públicos, etc.

— Colaborar con el personal de Urbanismo y Servicios en la elaboración de proyectos en aquellos aspectos relacionados con instalaciones eléctricas y alumbrado público.

— Realizar gestiones propias del área con Delegación de Industria, compañías suministradoras de energía, etc.

— Realizar informes de situación en relación con aspectos propios del área.

— Informar a empresas privadas de la ubicación de las instalaciones subterráneas de alumbrado público en previsión de averías y supervisar las actuaciones de las mismas.

— Mantener contactos y reuniones con personas, instituciones municipales y extra municipales en relación con asuntos del área y tareas encomendadas.

— Mantener contactos con el responsable de Servicios para coordinarse intercambiar información y recibir instrucciones.

— Realizar cualquier otra función que le sea encomendada de acuerdo con la categoría profesional del puesto.

EK\CV GAO-I-2026-07548

Laugarrena. Izangaien betekizunak.

Hautaketa-prozesuan onartua izan eta bertan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazioaren arabera, langileen joan-etorri askea aplikagarri zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea.

b) Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta haien ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda, haien kontura bizi badira.

c) Aurretiazko eskaera egitea.

d) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta dagozkion zereginak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko zein psikikorik ez izatea. Alderdi hori bere garaian egiaztatu beharko da, hautagaiak gainditu ondoren egingo zaion azterketaren bidez, Udalak horretarako ezarritako zerbitzuetan.

e) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adinera iritsi ez izana.

f) Diziplina-espediente bidez inolako administrazio publikotako edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organotako zerbitzutik bereizia ez izana, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absoluturik edo berezirik ez izatea funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo, lan-kontratuko langileen kasuan, bereizia edo desgaitua izan den lanpostuan betetzen zituen antzeko eginkizunak betetzeko.

g) Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikora baldintza berberetan sartzea eragozten dion diziplina-zehapenik edo baliokiderik jaso ez izana.

h) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu-titulua, teknikari laguntzailearena (LH1) edo homologatutako baliokideren bat izatea, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

i) Herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausa legalean sartuta ez egotea; hala ere, dagoeneko kargu publiko bat edo bateraezina den jarduera pribatu bat betetzen dutenek aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute, aipatutako lege-arauetan adierazitakoaren arabera.

j) Hautaketa-prozesuaren barruan euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 mailaren baliokidea) duela egiaztatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, edo azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan aitortutako baliokideren bat duela egiaztatzea.

k) B motako gidabaimena indarrean izatea.

Prozeduran parte hartu nahi dutenek aurreko apartatuan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean –d) eta j) apartatuak izan ezik–, eta deitutako lanpostura atxiki arte mantendu beharko dituzte, baldintza horiek prozeduraren zein fasetan egiaztatu behar diren alde batera utzita.

Cuarta. Requisitos de los/las aspirantes.

Para la admisión y en su caso, para tomar parte en el procedimiento selectivo serán requisitos necesarios:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

b) También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.

c) Formular solicitud previa.

d) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y no padecer enfermedad o defecto físico ni psíquico que impida el desempeño de las correspondientes tareas. Este extremo habrá de acreditarse en su momento, tras un reconocimiento a que será sometido el aspirante aprobado, en los servicios establecidos a tal efecto por el Ayuntamiento.

e) Haber cumplido 16 años y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

f) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado.

g) En caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o inhabilitada o en situación equivalente ni haber sido sometido/a a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos, el acceso al empleo público.

h) Estar en posesión o haber abonado los derechos para la obtención del título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria (ESO), Técnico Auxiliar (FP1), o equivalente homologado. En el caso de las titulaciones extranjeras, deberá estarse en posesión de la credencial que acredite su homologación.

i) No hallarse incurso/a en causa legal de incapacidad o incompatibilidad, previstos en la normativa vigente en materia de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio, para quienes ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible, de ejercitar el derecho de opción a que se refieren las citadas normas legales.

j) Acreditar dentro del proceso selectivo estar en posesión del perfil lingüístico 2 de euskera (equivalente al nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas), de conformidad con lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (nota: ajusta el Decreto si el Ayuntamiento es de Navarra), o equivalentes reconocidos en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre.

k) Permiso de conducir B en vigor.

Quienes deseen tomar parte en el procedimiento deberán reunir los requisitos exigidos en el apartado anterior a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, excepto el apartado d) y j), y mantenerlos hasta el momento de la adscripción al puesto convocado, sin perjuicio de la fase de procedimiento en que hubieran de proceder a su acreditación.

EK\CV GAO-I-2026-07548

Bosgarrena. Eskaerak.

5.1. Eskabideak aurkezteko modua.

Eskabidea elektronikoki aurkeztuko da, herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoen bidez iristeari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan oinarrituta.

Onartua izateko eta dagozkion hautaketa-probetan parte hartzeko, nahikoa izango da eskabidean, norberaren erantzukizunpean, eskatutako baldintza guztiak betetzen direla adieraztea, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

Parte hartzeko baldintza orokorrak, deitutako plazari lotutako lanpostuaren baldintza espezifikoak eta merezimenduak eskabidean alegatu beharko dira.

Parte hartzeko eskabidearekin batera ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak betetzen direla edo alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen inolako agiririk; nahikoa izango da izangaiek, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituztela prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiguztiak–hizkuntza-eskakizuna izan ezik–, eta deialdia argitaratzen den egunean alegatutako eta autobaloratutako merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Hori guztia, alde batera utzi gabe Alkatetzak edo dagokion Epaimahai Kalifikatzaileak bi kasuetan gerora egin dezakeen egiaztapena, edo izangaiek alegatutako merezimenduak bere garaian egiaztatu behar izatea eta dagokion Epaimahai Kalifikatzaileak horiek egiaztatzea.

Parte hartzeko baldintzen eta eskabidean alegatutako merezimenduen egiaztapen dokumentala Alkatetzak edo dagokion Epaimahai Kalifikatzaileak zehazten dituen eta horretarako berariaz errekeritzen zaizkien pertsonek bakarrik egin beharko dute, dagokion unean.

Oinarri hauen eta hautaketa-prozesuen ondorioetarako, izangaiak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merezimenduak badituela parte hartzeko eskabidean adieraztea erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Euskararen informazioari buruzko eskabidearen atalean nahitaez adierazi beharko da, eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten.

5.2. Eskabideak aurkezteko lekuak.

Elektronikoki, udalaren webgunean (https://ordizia.eus). Izapidea elektronikoki egiteko, beharrezkoa da ziurtagiri digital bat izatea (B@kQ, NAN elektronikoa, Izenpe txartela, etab.).

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta horren erabilera hautaketa-prozesua kudeatzera mugatuko da. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legean aurreikusitakora egokituko da.

Ordiziako Udalak zuzenean kontsultatuko edo bilduko ditu, datu-bitartekaritzako plataformen eta bestelako sistema elektronikoen bidez, sektore publikoko edozein entitatetan edo beste entitate batzuetan, oinarri espezifikoetan, deialdian eta abarretan eskatutako baldintzak egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak eta agiriak, Administrazio Publikoen esku dauden datuak eta agiriak ez aurkezteko eskubidean oinarrituta (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua).

Zehazki, Ordiziako Udalak honako datu/agiri hauek kontsultatuko edo bilduko ditu, bai eskabidea aurkezteko unean, bai ondorengo berrikuspenetan, salbu eta interesdunak modu arrazoi-

Quinta. Solicitudes.

5.1. Forma de presentación de solicitudes.

La instancia en base al Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos se realizará electrónicamente.

Para ser admitidas o admitidos y tomar parte en las correspondientes pruebas selectivas, bastará con manifestar en la instancia, bajo su responsabilidad, que se reúnen todas las condiciones exigidas, referidas siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

Los requisitos generales de participación, los requisitos específicos del puesto de trabajo asociado a la plaza convocada y los méritos deberán ser alegados en la solicitud.

Con la solicitud de participación no habrá de presentarse ningún documento acreditativo del cumplimiento de los requisitos de participación ni de los méritos alegados, bastando con que los/as aspirantes, bajo su responsabilidad, manifiesten que a la fecha de expiración del plazo de presentación de la solicitud de participación reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos para participar en el proceso, a excepción del perfil lingüístico, y que los méritos alegados y auto valorados a la fecha de publicación de la convocatoria son veraces y exactos, sin perjuicio, en ambos casos, de su posterior comprobación por la Alcaldía o el Tribunal Calificador correspondiente o la acreditación, en su momento, de los méritos alegados por las personas aspirantes y su comprobación por el respectivo Tribunal Calificador.

La acreditación documental de los requisitos de participación y de los méritos alegados en la solicitud sólo deberán realizarla, en el momento que corresponda, aquellas personas expresamente requeridas para ello que determine la Alcaldía o el Tribunal Calificador correspondiente.

A los efectos de las presentes bases y los procesos selectivos, la manifestación en la solicitud de participación de que la persona aspirante cumple los requisitos de participación y ostenta los méritos alegados en la misma, tendrá la consideración de declaración responsable en los términos del artículo 64 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En el epígrafe de la instancia relativo a la información del euskera se indicará necesariamente si están en posesión del perfil lingüístico requerido en su caso.

5.2. Lugares de presentación de instancias.

Electrónicamente en la página web municipal (https://ordizia.eus). Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@kQ, DNI electrónico, tarjeta de Izenpe, etc.).

Toda la información facilitada por el personal aspirante en la solicitud será incluida en una actividad de tratamiento cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo. El uso y funcionamiento de esta actividad de tratamiento se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y de la Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.

El Ayuntamiento de Ordizia consultará o recabará directamente, a través de plataformas de intermediación de datos y otros sistemas electrónicos, en cualquier entidad del sector público u otras entidades, los datos y documentos necesarios para acreditar los requisitos exigidos en las bases específicas, convocatoria... en base al derecho a no aportar datos y documentos que estén en poder de Administraciones Públicas (art. 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

Concretamente el Ayuntamiento de Ordizia consultará o recabará los siguientes datos/documentos tanto en el momento de la solicitud como en sucesivas revisiones, salvo que la perso-

EK\CV GAO-I-2026-07548

tuan aurka egiten badio (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua). Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak adierazi eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da.

— Nortasun-datuak egiaztatzea.

— Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).

— Hizkuntza-eskakizuna (Euskara).

— Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

— Desgaitasun-ziurtagiria (hala dagokionean).

Interesdunarekin zerikusirik ez duten arrazoi teknikoengatik administrazioen arteko elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada edo bitartekaritza-plataformak datu erabakigarririk ematen ez badu, Ordiziako Udalak zuzenean eskatuko dio ukitutako pertsonari beharrezko agiriak aurkez ditzala, eta horretarako epe bat emango dio; epe horrek ez dio kalterik egingo bere merezimenduen edo baldintzen baliozkotasunari.

5.3. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak hogei (20) egun balioduneko epean aurkeztuko dira, dagokion iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Antzeman daitezkeen egitatezko akatsak eskabideak aurkezteko epearen barruko edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

5.4. Tasaren ordainketa.

Ordiziako Udaleko langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenek ordaindu beharreko 20 euroak ordaindu izana, Ordiziako Udaleko Ordenantza Fiskalaren hirugarren artikuluan adierazten den eran.

Tasaren ordainketa modu nominalean eta banakatuan egingo da.

Tasa autolikidazio-erregimenean eskatuko da, eta diru-sarrera bitarteko elektronikoen bidez egingo da, deialdi honek izango duen ordainketa-pasabidearen bitartez.

Langileak hautatzeko deialdietan izena emateari dagozkion tasak ez ordaintzeak edo osorik ez ordaintzeak, eskabideak aurkezteko epearen barruan, izangaia hautaketa-prozesutik automatikoki kanpo uztea ekarriko du.

Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaintzeak ezingo du inolaz ere ordezkatu eskabidea behar den garaian eta moduan aurkezteko izapidea.

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO), Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legearen aurreikuspenekin.

Seigarrena. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzeko. Zerrenda horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira, eta 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetako akatsak zuzentzeko. Adierazitako epearen barruan bazterketa formalaren arrazoia zuzentzen ez dutenak prozesutik behin betiko baztertuta geratuko dira.

na interesada se opusiera a ello de forma motivada (art. 21 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016). En caso de oposición deberán indicarse las razones de la oposición y aportar la documentación correspondiente.

— Verificación de datos de identidad.

— Titulaciones académicas (tanto universitarias como no universitarias).

— Perfil lingüístico (Euskera).

— Certificados de cursos: listado de cursos superados realizados a través del IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública).

— Certificado de discapacidad (cuando proceda).

Si por causas técnicas ajenas al interesado la interoperabilidad entre administraciones no fuera posible o la plataforma de intermediación no arrojase datos concluyentes, el Ayuntamiento de Ordizia requerirá directamente a la persona afectada la aportación de los documentos necesarios, otorgándole un plazo al efecto que no perjudicará la validez de sus méritos o requisitos.

5.3. Plazo de presentación de instancias.

Las instancias se presentarán dentro del plazo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del anuncio correspondiente en el *Boletín Oficial del Estado*.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento dentro del plazo de presentación de instancias, de oficio o a petición de el/la interesado/a.

5.4. Pago de la tasa.

Haber abonado la tasa por participación en procesos selectivos, cuyo importe es de 20 euros, conforme a lo establecido en el artículo tercero de la Ordenanza Municipal del Ayuntamiento de Ordizia reguladora de la tasa por la prestación a las personas interesadas de los servicios necesarios para la realización de pruebas selectivas de acceso a la condición de personal de Ayuntamiento de Ordizia.

El pago de la tasa se realizará de forma nominal e individualizada.

La tasa se exigirá en régimen de autoliquidación y el ingreso se realizará por medios electrónicos, a través de la pasarela de pagos de que dispondrá esta convocatoria.

El incumplimiento en el abono o el pago incompleto de las tasas correspondientes a la inscripción en la convocatoria para la selección de personal, dentro del plazo de presentación de solicitudes, dará lugar a la exclusión automática del/de la aspirante del proceso selectivo.

En ningún caso el pago de la tasa por la inscripción en las convocatorias para la selección de personal podrá sustituir el trámite de presentación de la solicitud en tiempo y forma.

Toda la información facilitada por el personal aspirante en la solicitud será incluida en una actividad de tratamiento cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo. El uso y funcionamiento de esta actividad de tratamiento se ajustará a las previsiones del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 (RGPD), de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y de la Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.

Sexta. Admisión de los aspirantes.

Expirado el plazo de presentación de instancias, el alcalde dictará resolución aprobando las listas provisionales de admitidos/as y excluidos/as que serán expuestas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, Tablón de anuncios del Ayuntamiento y Web municipal concediéndose un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones y subsanar errores en las instancias. Quienes dentro del plazo señalado no subsanen la causa de exclusión formal, serán definitivamente excluidos del proceso.

EK\CV GAO-I-2026-07548

Aurkeztutako erreklamazioak onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri batean onartu edo ezetsiko dira, eta zerrenda hori adierazitako moduan argitaratuko da. Behin betiko zerrendarekin batera, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapena argitaratuko da, eta hamar (10) egun balioduneko epea irekiko da horiek errekusatu ahal izateko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Aldez aurretik eta aukeran, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, Epaimahai Kalifikatzailearen iragarki, ariketen kalifikazio eta ondorengo jakinarazpen guztiak udalaren Iragarki Taulan eta udal webgunean argitaratuko dira: www.ordizia.eus.

Zazpigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai kalifikatzailearen osaera zehatza, kide titularrak eta ordezkoak barne, Alkatetza-Lehendakaritzaren ebazpen bidez izendatuko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendarekin batera.

Epaimahaiak kide anitzeko izaera izango du, eta bost kidek osatuko dute (Lehendakaritza, Idazkaritza eta hiru Bokal); guztiek hitzarekin eta botoarekin jardungo dute banaka, inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta independentzia teknikoko printzipioen pean. Kide guztiek enplegatu publikoak izan beharko dute, eta deialdian parte hartzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa eduki beharko dute; bokalen erdiek gutxienez sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko titulazioa eduki beharko dute. Kide bat Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) proposatuta izendatuko da, euskararen ezagutza egiaztatzeko probak baloratzeko erakunde berak proposatuta izendatzen denaz gain.

Ezingo dute Epaimahaiko kide izan hautetsiek, behin-behineko langileek eta bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako lan-kontratuko langileek. Bidezkoa ez dela behar bezala justifikatzen ez bada, epaimahaiaren osoaran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da; horrelakotzat hartuko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean.

Epaimahaiak bildutako kideen botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak. Berdinketa gertatuz gero, bigarren bozketa bat egingo da eztabaida berri baten ondoren; berdinketak bere horretan jarraitzen badu, proposamena edo erabakia baztertutzat joko da. Egokitzat jotzen denean, aholkulari espezialistak sartzea erabaki ahal izango da, eta beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikuluarekin bat etorriz; hitzarekin baina botorik gabe jardungo dute. Aholkulari espezialistaren izaera hori izango du euskararen ezagutza egiaztatzeko probak baloratzeko IVAPek proposatuta izendatzen den pertsonak.

Epaimahaiko kideek abstenitu egin beharko dute, edo errekusatuak izan daitezke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira. Epaimahaiak aipatutako 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura zehaztutako arauetara egokituko du bere jarduna, eta balio osoz eratzeko beharrezkoa izango da Lehendakaritza eta Idazkaritza betetzen di-

Las reclamaciones presentadas serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en la forma indicada. Junto con la lista definitiva, se publicará el nombramiento de las personas miembros del Tribunal Calificador, abriéndose un plazo de diez (10) días hábiles para su posible recusación de conformidad con los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre.

Contra la resolución que apruebe la lista definitiva de personas admitidas y excluidas, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de dicha Jurisdicción. Con carácter previo y potestativo, podrá interponerse recurso de reposición ante el órgano que la dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

A partir de la publicación de la lista definitiva, todos los anuncios, calificaciones de los ejercicios y sucesivas comunicaciones del Tribunal Calificador se darán a conocer a través del Tablón de Anuncios del ayuntamiento y en la web municipal: www.ordizia.eus.

Séptima. Tribunal calificador.

La composición exacta del Tribunal calificador, incluyendo sus miembros titulares y suplentes, será nombrada mediante resolución de la Alcaldía-Presidencia y se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa juntamente con la relación definitiva de personas admitidas y excluidas.

El Tribunal tendrá carácter colegiado, estará integrado por cinco miembros (Presidencia, Secretaría y tres Vocales), actuando todos ellos con voz y voto a título individual bajo los principios de imparcialidad, profesionalidad e independencia técnica. Todos los miembros deberán ser empleados o empleadas públicas con titulación académica de nivel igual o superior al exigido para tomar parte en la convocatoria, poseyendo al menos la mitad de los vocales una titulación correspondiente a la misma área de conocimientos que la exigida para el ingreso. Un miembro será nombrado a propuesta del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), además de aquel que resultare designado, a propuesta del mismo instituto, para la valoración de las pruebas de acreditación del conocimiento del euskera.

No podrán formar parte del Tribunal los cargos electos, el personal eventual ni el personal funcionario interino o laboral temporal. Salvo que se justifique debidamente su no pertinencia, la composición del tribunal garantizará una representación equilibrada de mujeres y hombres, entendiéndose por tal cuando en los órganos de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40 %.

El Tribunal adoptará sus acuerdos por mayoría de votos de los miembros congregados. En caso de empate, se procederá a una segunda votación tras una nueva deliberación; de persistir el empate, la propuesta o acuerdo se considerará rechazado. Cuando se considere conveniente, se podrá disponer la incorporación de asesores o asesoras especialistas, quienes se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas de conformidad con el artículo 81.9 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de la Función Pública Vasca, actuando con voz, pero sin voto. Tendrá esta condición de asesor/a especialista la persona que sea designada a propuesta del IVAP para la valoración de las pruebas de acreditación del conocimiento del euskera.

Los y las miembros del Tribunal deberán abstenerse o podrán ser recusadas si concurren las circunstancias previstas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. El Tribunal ajustará su actuación a las reglas determinadas en los artículos 15 a 18 de la citada Ley 40/2015, siendo necesaria para su válida constitución la asistencia de las personas que ejerzan la Presidencia y la Se-

EK\CV GAO-I-2026-07548

tuzten pertsonak –edo haien ordezkoak– eta, gutxienez, kideen erdiak bertaratzea. Epaimahaiek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduko dute eta prozeduraren objektibotasuna bermatzeko erantzukizuna izango dute. Era berean, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko dituzte, eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak hartuko dituzte oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan. Hautaketa-prozesuko edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunari entzunaldia eman ondoren, hura baztertzea proposatuko dio organo eskudunari, egindako zehaztugabetasunak edo faltsukeriak jakinarazita.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeherako guztietarako, epaimahaiak helbide hau izango du: Ordiziako Udaleko giza baliabideen bulegoa, Kale Nagusia 24, 20240 Ordizia.

Zortzigarrena. Azterketa prozesuaren hasiera eta garapena.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketarena izango da. Lehen probaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da, azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia adieraziz, hautapen-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenarekin batera. Gainerako proben datak Udalaren iragarki taulan eta udal-webgunean argitaratuko dira.

Izangaiei dei bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Aurkezten ez dena behin betiko baztertuta geratuko da, proba egin aurretik behar bezala egiaztatutako eta epaimahaiak aintzat hartutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Nolanahi ere, arriskuko haurdunaldian, erditzean edo erditu ondorengo berehalako aldian dauden emakumeei probak atzeratzeko eskubidea bermatuko zaie; horretarako, egoera hori behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko zaio epaimahaiari, dagokion mediku-txostena aurkeztuta.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkie desgaitasuna izan eta eskabidean egokitzapen hori eskatu duten pertsonei, hartara, gainontzeko parte-hartzaileen aukera berbera izan dezaten; betiere, hori eginda, probaren edukia desitxuratzen ez bada, eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo kalte tzen ez bada.

Prozesuaren edozein unetan, Epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela bete tzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, prozesutik kanpo geratuko da interes dunari entzun eta gero, eta egun berean hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri.

Bederatzigarrena. Hautaketa-prozedura.

Izangaiek proba guztietara NANa, gidabaimena edo pasaportea dutela joan beharko dute, epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango baitie dokumentazio hori. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duena hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Epaimahaiak erabaki dezake oinarri hauetan aurreikusitakoaz bestelako hurrenkera batean egitea probak, baita egun berean proba bat baino gehiago egitea ere. Izangaiak txandaka deitu ahal izango dira, baita egun desberdinetan ere.

Oposizio-lehiaketako emaitza eta kalifikazio guztiak Ordiziako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dira.

Arau orokor gisa, egindako azterketak berraztertzeko eskaera egiteko edo azterketei emandako kalifikazioen inguruko erreklamazioak egiteko, hiru egun balioduneko epea ezarriko da epaimahaiaren ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta.

Azterketa idatziak egiten direnean, epaimahaiak bidezkoak diren neurriak hartuko ditu izangaien anonimotasuna, ahal den neurrian, bermatzeko.

cretaría, o sus sustitutos, y de la mitad, al menos, de sus miembros. Los Tribunales actuarán con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsables de garantizar su objetividad. Asimismo, resolverán todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases y tomarán los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria ante supuestos no previstos en ellas. Si en cualquier momento del proceso selectivo el Tribunal tuviere conocimiento de que un aspirante no cumple alguno de los requisitos exigidos, previa audiencia del interesado propondrá su exclusión al órgano competente comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas.

A efectos de comunicaciones y demás incidencias, el tribunal tendrá su domicilio en la oficina de personal del Ayuntamiento de Ordizia, Kale Nagusia 24, 20240 Ordizia.

Octava. Comienzo y desarrollo del proceso selectivo.

El sistema de selección será el de concurso-oposición. La convocatoria de la primera prueba se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, Tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal, indicando fecha, hora y lugar de celebración del examen, conjuntamente con la resolución por la que se apruebe la lista definitiva de personas admitidas y excluidas del proceso se lectivo. La fecha del resto de pruebas se publicará en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal.

Los aspirantes serán convocados una sola vez para cada ejercicio. Quien no se presente quedará definitivamente excluido, salvo en casos de fuerza mayor debidamente acreditados y apreciados por el Tribunal antes de la realización de la prueba. Se garantizará, en todo caso, el derecho al aplazamiento de las pruebas a las mujeres en situación de embarazo de riesgo, parto o postparto inmediato, debiendo comunicarse dicha circunstancia al Tribunal con la suficiente antelación aportando el correspondiente informe médico.

El tribunal calificador adaptará el tiempo y los medios de realización de los ejercicios a aquellas personas aspirantes con discapacidad que precisen adaptación y la hubieren solicitado en la instancia, de forma que gocen de igualdad de oportunidades con el resto de personas participantes, siempre que con ello no se desvirtúe el contenido de la prueba, ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigido.

Si en cualquier momento del proceso llegara a conocimiento del Tribunal que alguna de las personas aspirantes carece de requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia de la persona interesada, dando cuenta el mismo día a la autoridad que haya convocado el proceso selectivo.

Novena. Procedimiento de selección.

Las personas opositoras deberán acudir a todas las pruebas provistos del DNI, permiso de conducir o pasaporte, ya que el tribunal les podrá requerir dicha documentación en cualquier momento. Quién no presente la documentación solicitada, quedará fuera del proceso selectivo.

El tribunal podrá modificar el orden de las pruebas en orden diferente al previsto en esta misma base, así como la celebración de varias pruebas el mismo día. Los opositores podrán ser convocados por turnos, y también en días diferentes.

Todos los resultados y calificaciones del concurso-oposición serán publicados en el tablón de anuncios de Ayuntamiento de Ordizia y en la página web.

Como norma general, se establecerá un plazo de tres días hábiles, contados desde el día siguiente a la fecha de publicación de la resolución del tribunal, para solicitar la revisión de exámenes realizados o para presentar reclamaciones sobre calificaciones de estos.

En la realización de los ejercicios escritos el tribunal adoptara las medidas oportunas para garantizar, siempre que sea posible, el anonimato de los y las aspirantes.

EK\CV GAO-I-2026-07548

Izangaien hautaketa lehiaketa-oposizioaren sistema bidez egingo da.

1. Oposizio-fasea.

1.A. Lehenengo ariketa: Teorikoa.

Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Epaimahaiak horretarako prestatutako erantzun alternatiboko galdera-sorta bat (test motakoa) idatziz erantzutean datza, oinarri hauetako I. eranskinean jasotako gai-zerrendari buruzkoa.

Gehienez 20 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Gaizki erantzundako erantzunak formula honen arabera zigortuko dira:

$$P = Z - (O / (n - 1))$$

«P» puntuazioa da, «Z» erantzun zuzenak, «O» erantzun okerrak eta «n» galdera bakoitzak dituen aukerako erantzunak. Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira erroretzat hartuko.

1.B. Bigarren ariketa: Praktikoa.

Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Ataza edo galderatan banakatutako kasu praktiko bat edo gehiago egitean datza, I. eranskineko gaiekin eta Elektrizista arduradunaren lanpostuari dagozkion eginkizunekin lotutakoak.

Ariketa hau gehienez 50 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.

1.C. Hirugarren ariketa: Hizkuntza-eskakizuna (Euskara).

Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Plaza bakoitzaren deskribapenean ezarritako Euskara maila egiaztatzea. Hirugarren ariketa hau egiteko hurrenkera alda daiteke, IVAPek hautaketa-prozesuetako hizkuntza-eskakizunen azterketetarako deialdi bateratuak egiteko ezar dezakeen egutegiaren arabera. Euskarako maila egiaztatzean datza. «Gai»/«Ez Gai» kalifikazioa emango zaio.

Ez da beharrezkoa izango eskatutako euskararen mailari dagokion proba egitea, baldin eta aldez aurretik egiazta tzen bada hizkuntza-eskakizun hori edo goragokoa duela.

Epaimahai kalifikatzaileak jendaurrean jakinaraziko du hautaketa-prozesuaren barruan euskarako proba noiz egingo den.

Oposizio-aldiko proba bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu Udalaren egoitza elektronikoan, eta hamar (10) egun balioduneko epea irekiko da interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak edo oharrak aurkez ditzaten. Horiek ebatzitakoan, epaimahaiak behin betiko bihurtuko ditu puntuazioak. Oposizio-aldiko azken kalifikazioa lehenengo eta bigarren ariketetan lortutako noten batura izango da.

2. Lehiaketa fasea.

Bigarren ariketaren behin betiko emaitzak argitara ematen direnetik, 10 egun balioduneko epea ezarriko da merezimenduak egiaztatzeko. Baloratuko diren merezimenduak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren iragarkian eskabideak aurkezteko ezarritako azken eguna baino lehenagokoak izango dira soilik.

Eskabidean adierazitako merezimenduak eta parte hartzeko baldintzak berariaz eskatzen zaizkien izangaiek baino ez dituzte egiaztatu beharko, horretarako ematen den unean eta epean.

Lehiaketa-faseak –ez da baztertzailea– gehienez 30 puntu izango ditu. Alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen artean, jarraian zehazten direnak aztertu eta baloratuko dira, eta

